

# Eliteen heziketa, garaiko politikagintza eta W. von Humboldten ekarpena

(The foundation of the elite, the politics of the epoch and the contribution of W. von Humboldt)

Agirreazkuenaga Zigorruga, Joseba  
Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea  
Euskal Herriko Unibertsitatea. Historia Garaikidea Saila  
644 Posta Kutxa  
48080 Bilbo

BIBLID [0212-7016 (1996), 41: 2; 459-464]

---

*Eliteen heziketa sistema zein zen erakusten da artikulu honetan eta nola gizarteratzen ziren. Horrez gainera, politikagintza zelan egiten zen W. von Humbolten garaian agertzen du.*

*Giltz-Hitzak: Eliteak. Hezkuntza. Sozializazioa. Politika. Euskal Herria.*

*El artículo expone por un lado los sistemas de formación cultural y educación formal que conocieron las élites políticas de Vasconia y las prácticas de socialización. Asimismo analiza las formas de intervención pública de las referidas élites en los tiempos en que W. von Humboldt visitó Vasconia.*

*Palabras Claves: Elites. Educación. Socialización. Política. Euskal Herria.*

*L'article présente d'un côté les systèmes de formation culturelle et d'éducation formelle que connurent l'élite politique Basque et les pratiques de socialisation. Il analyse de la même manière les formes d'intervention publique de cette élite à l'époque où W. von Humboldt visita la Basconie.*

*Mots Clés: Elites. Education. Socialitation. Politique. Pays Basque.*

Humboldték Euskal Herriaz idatzi zituen gaietan, hainbat arazo korapilaturik agiri dira. Hizkuntzarekikoa beharbada izan da gehien aipatu dena. Baina kultura zabaleko gizakia izanik, gizarteko arazo ororen ardura hartzen zuen eta bereziki giza komunitatea antolatzeke era politikoa, bere ardura eta kezkatario ere bazen. Iraultza frantzesak European izugarritzko aldaketa ekarri zuela begi bistakoa zen eta aukera berriak zeuden. Psikologia kolektiboa, ohi-turak, gizarteko klaseak, barra barra nabari dira. Horien artean nazio hitza modu oparoan agiri da. Herria ere bai. Kategoria bi hauek XVIII mendean bukaeran erruz zabaldu ziren eta politikagintzan polisemikoak ziren, gaurregunean gertatzen den bezala<sup>1</sup>. Humboldtén kasuan nazioa eta herria badirudi sinonimotzat erabiltzen direla baina bereiztasun karakteriologiko edo hizkuntzazkoa garbiz ornituriko herria dugunean. Euskal Herriko kasuan, herria edo nazio eta lurraldea bereizten ditu. (“me interesan esa nación y el país” (...)) “lo diferencial del idioma, del pueblo y del país”<sup>2</sup> Beraz Herria bere komunitario eta tenporalitate zentzuan eta espazioren arloa bereizten ditu. Euskal Herri kontzeptua berez definizio biak hartzen ditu euskaraz: Herri komunitate gisa, eta Herri lurralde edo espazio fisikoaren adierazle, herri kontzeptu geografiko toponimikoa eta giza talde kolektiboa baitira euskaraz.

Ilustrazio garaiko kezkatario bat hezkuntzarena genuen. Eliteen formazio intelektuala eta jakinduria lortzea zen helburu. Herri kultura eta goi mailako klaseen kultura jantzia eta landua, bereizten hasi zen nabarmenki. Bereizketa honek tamalez ondorio txarrak ekarri ditu. Euskal Herriari buruz, Humboldték uste zuen euskal zibilizazioa hil zorian zegoela, bere “nazionalitatea eta hizkuntza” desagertzeaz zibilizazio modernoaren zurrumbiloan<sup>3</sup>. Ez du ez singular bakanean bakarrik hartzen Euskal Herria, aniztasunean baizik. Argi eta garbi bereizten ditu “euskal nazioak” daudela eta ez nazio bakarra. Hala ere, Euskal Herriaren nolabaiteko batasuna ere jabetu zen eta zoritxarrez batasun zentzu horren definizio ezaz kezkatu, gogoeta jakingarriak egin zituen, horixe bait zen euskal herritarren axolagabekeria eta hondamendiaren seinuetariko bat<sup>4</sup>.

Gure txosten honetan, Euskal Herrian zehar ibili zeneko garaia agertu nahi genuke laburki: Zeintzuk ziren arazo nagusiak eta eliteen hezkuntz sozializazioa nola lortzen zen arakatu. Baita ere, bere obserbazioak, gogoetak eta galderak garaiko euskal herritarren pentsakera politikoa kokatu, eta azkenik 200 urteko balantzea egin. Humboldtén lanean gaurkotasunez beteriko kezkak eta galderak aurkitzen ditugu. Beste modu batera adieraziz, euskal modernitateaz gogoetak burutu zituen eta beharbada atzerritik etortzeak halako pribilegiozko ikuspegia izan zuen.

## 1. ELITEEN HEZIKETA

Euskal Herriko buruzagien heziketa eta kultur maila, XVIII mendean nabarmenki igo zen. XVIII mendearen lehen erdian, Pedro Villarreal de Berriz jaunaren heziketabidea dugu adie-

1. FRITZ G., *L'idée de peuple en France du XVIIe au XIXe siècle*. Strasbourg, 1988, p.1.

2. HUMBOLDT W., *Wilhelm von Humboldts Gesammelte Schriften. Herausgegeben von der Preussischen Akademie der Wissenschaften. Dreizehnter Band, Wilhelm von Humboldts Werke. Herausgegeben von Albert Leitzmann. Dreizehnter Band Berlin. B. Behrs's Verlag(fidrich Feddersen)1920. Berlin, 1920*, Los vascos apuntacines sobre un viaje por el país vasco en la primavera de 1801. (trad. T. Aranzadi) San Sebastian, 1925, 118 orr.

3. HUMBOLDT W., op. cit. 119.

4. Sarreran Euskal Herriaren defizio ezaz garaian garaiko euskal herritarrentzat erabilitako definizioak ikus daitezke. op. cit. 117 orr.

razbide garbia<sup>5</sup> Bigarren erdian, heziketa sakonez janztea premiazkoa zela etorkizunean buruzagitzaren egokia lortzeko ezinbestekoa zela ondo zekiten X. Muniberen garaikoak. Horregatik Herri Adiskideen proiektu nagusia goi mailako irakaskuntza zentroa antolatzea zen. Dena dela Humboldten testigantza Bergarako Real Seminario Patriótico Vascongadori buruz ez zen izan hain positiboa “lo que más me chocó en mi rápida visita fue que jóvenes todos nobles y varios que son hijos de grans no reciban allá, ni con mucho una educación liberal y calculada de la conducta externa”(…) la mayoría de los seminaristas, aunque no todos son luego militares. “<sup>6</sup> Dena dela, jakintza gunea sortu eta indarturik zegoen goi klaseen artean eta herritarrak ere heziketa bidea hartzeko aukera ireki zen.

Humboldték ez zuen uste Europako bazter honetan goi mailako jakintza egarririk egon zitekeenik. Horregatik, haundiki batzuen jakinduriaz harritu egin zen, baina bazirudien euskara axola gutxiz hartzen zutela, agindutakoa ez baitzuen bete Murgari salatu zion legez<sup>7</sup>. Euskal Herria alde batetik barbaroa zen, hau da aintzinatearen ispilua. Baina bestalde bertako buruzagiak modernotasunez beteriko pertsonak ere bai. Beharbada bertako hizkuntza nazionalaz, euskarari buruz, axola gutxikoak ziren. Eta ez hori bakarrik. Populua bera ere, politikagintzan artzeko prestakuntza, eta ez bestaldeko herrietako “une masse inerte”.

Oñatiko Unibertsitatea ere indarrean zegoen, baina lege zaharreko giroan kokatua. Horrela, lege zaharreko gizarteko profesionalen heziketaz arduratzen zen batipat, eliztarrak, abokatu eta gero zeregin burokratiko eta administratiboetan arituko zirenen prestakuntzen arabera antolatuturik zegoen.

## 2. POLITIKAGINTZA

Iraultza frantsesak Europako bazterrak astindu zituen. Euskal Herriko eremuan hainbat gertakizunen tokia bihurtu zen. Baina areago, buruzagi politikoak berehala konturatu ziren politikagintza berrirako aldia hasten zela. 1778.eko urteaz geroztik, egitura ekonomikoaren gainbehera agiri zen eta Euskal lurraldeak Espainiako Erresuman aukera edo alternatiba berrien aurrean zeuden: Ohizko erakundetzearen jarraipena edo aldaketa, bereziki foruen ondorioz aduanen tokia nun kokatu bihurtu zen arazo nagusia.

Horren inguruan, konturaturik zegoen, erresuma borbonikoaren gidari espainolen baitan, zentralizatorako zioa gero eta indartsuagoa zela. Azken batean monarkia administratibo berriaren sorkuntzan ari ziren Espainiak, Espainia bihurtuz, Conde Duque de Olivaren delakoak 100 urte lehenago nahi zuen ildotik alegia. Larramendi guzti horren aurka jadanik bere kontrako portaera agertu zuen. Eta Euskal Herri mendebaleko probintzietako buruzagiak jabetzen hasiak ziren jadanik arrisku zentralizatzailea, beraien esistentzia politikoaren ezereza suposatuko baitzuen. Horregatik, Hiru probintzien (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba) arteko loturak indartu egin ziren, “Conferencias” izeneko bilkurak azkartu eta sendotuz. Giro honetan, 1793.eko hitzarmena dugu unerik garrantzitsuenak: Espainia eta Frantzia gerran zeuden eta Euskal Herria zen eszenatokia. Hitzarmena euskal lurraldeen arteko elkartasuna sendotzeko

5. Pedro Bernardo Villarreal de Berriz. *Euskaldunon ekarpena XVIII.eko injeniaritzari. La aportación vasca a la ingeniería del XVIII*. Bilbao, 1990.

6. GARATE J., *Guillermo de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*. Bilbao, 1933, p. 22-23

7. “Vous, Monsieur, Vous occupez trop peu de Votre langue nationale à ce qu’il m’a paru pour que j’aye pu oser demander quelques secours pur cette entreprise toujours assez difficile pur un étranger” GARATE J., “Cinco cartas inéditas de Guillemo de Humboldt”, RIEV, 1934, orr.440

aukera zen, Frantziako armadari aurre egiteko alegia. Baina politikoki, Euskal Herriaren politikagintza eta erakundetze eredia ere agiri zuen aipaturiko hitzarmenak.<sup>8</sup>

## HUMBOLDTEN ETORRERA ETA EKARRIA

W. Humbolten iturri garrantzitsuenetarikoa Euskal Herriaz A. Oihenarten *Notitia Utriusque Vasconiae*, erabili zuen. Beraz Euskal Herriaz, ikuspegi baskonikoa hartu zuen, baterakoia. Baina laster konturatuko da, Vasconia bi ez ezik ugariak daudela. Jakina iberikoa eta Akitanoa ondo berezirik bi erresuma sendoren partaide ziren heinean.

Hala ere, Euskal Herria berezia zen, herri moduan, bere nazionalitate edo bereizkuntza nazionala nabarmenki desberdina zela. Baina gaurko hitzetan, etnikoki ez ezik, politikoki, ere nazioa zela, erakundetze eta ohitura propioen jabe, legitimazio juridiko eta politikoa sendoa zuela. Suizako kantoiekin parekatzen du lurraldea, baina jakina ez zen nabari horrenbesteko independentzia, erresuma indartsu eta proiektio haundikoen baitan txertaturik zeudelako. Baina hala ere bera, nazio etnikoa, herritarra ez ezik, nazio ilustratua definitu eta deskribatu zuen. Horra bere ekarpenik garrantzitsuenak.

Gerora, XIX mende erdian, nazio erromantikoa gailendu zen Euskal Herriaz mintzatzera-koan, bereziki D'Abbadiren ikuspegia eta ekintza lore jokoan bidez, eta euskal jaiak hain zuzen ere, herri erromantikoaren azpimarratzea bilatzen saiatu zen.

Delako nazio ilustratua, bere ustez, Euskal Herriko parte batetan baino ez zen agiri "nation Biscayenne". Bertako buruzagiak kultur eta zibilizazio molde berrietara egokiturik zeuden eta politikoki bere berezitasunaren jabe. Erakundetze politiko propioa, euskal jatorrizkoa lantzen zuten. Dena dela ohizko foruak, "privilèges des Provinces Basques de l'Espagne") ez dira premiazkoak delako nazio edo herriaren nortasuna edo karakterra definitzeko. Berez, eliteen borondate berria aski zen, nazio ilustratu euskalduna hezuramiturik zegoela ikusteko.

Giro honetan, euskal herritarren baitan egin zituen bereizketa ulergarri bihurtzen zaigu: Biscayens alde batetik eta Basques(iparraldekoak alegia) bestetik bereizirik agiri dira bere lanetan: Lehendabizikoak, Espainiako Erresumaren baitan, nortasun politiko bereziaren jabe ziren, bai herrian bai herbestean, Madrillen, Sevillan eta Ameriketako hiritan. Ez dira etnikoki soilik bereizten, politikoki baizik. Batzar Nagusiak eta ondoko erakundetze guztiaren deskribapen zehatza egin zuen, eta hor nabari zuen erakundetze berezia eta propioa. Baita ere igerri zuen Espainiaren barruan, bizi ziren tirabirak. Gogoeta egiten du, berezitasuna eta propiotasuna, goi mailako batasunaren baitan nola gorde daiteke? Erresumaren baitan Euskal Herriak zenbateko ekarpena egin dezake? Erresuma zaharrak, Estatu-Nazio berriak sortzean zeuden eta erresuma zaharretako nazioak, Estatu-Nazio berrian nola txertatu? Horra nire ustez galdera nagusia sakontasun luzekoa eta gaurkotasun betea. Prusia eta Germaniar herrien arteko ados eta desadostasunak ere edukiko zituen bere buruan. Baina Euskal Herriaren kasuan bete betean asmatu zuen galderaz eta gaurregunean ere horretan dirau, Estatu eta Batasun Europarraren baitan.

Baina orduko buruzagiak konturatu ziren, euskal erakundeen arteko batasun gabe, bere indarra bapezean gelditzeko arriskua zuela. Horrela, "Conferencias" delako sistema, hots, batzar bateratzaileak indartu zituzten. Batzar Nagusien ordezkariak biltzen ziren elkarren

8. AGIRREAZKUENAGA J., *La articulación político institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)* Bilbao, 1995, 2 vol.

arteko arazoak eztabaidatzeko, konponbidean jartzeko. Baina garrantzitsuena, Erresuma barruan joera politikoa bideratzea, tokian tokiko botereak zaintzeko. Estrategi hau beharbada batez ere lur zabaleko aristokratena eta haundikiena zen. Baina hirietako burgeseriaren baitan Bilbokoan bereziki nabari da tokian tokiko botereen defentsa. Erresuma barruko administrazioan, bitarteko botereak defendatzen zituztenak, euskal diputazioen antolakundea eta boterea zuten eredutzat. Iraultza liberaleko zurrumbiloan, mutandis mutatis, girondinoen aukeran bideraturik zegoen. Eta Humboldtentzat, aukera pozgarria zen. Batzar nagusietan, populuaren presentzia ere ikusten zuelako. Baina Bizkaian matxinadaren joera bizi bizi zegoen. Horra Zamakoren garaikoa (1804) eta 1808.eko gertakizunak. Hirigune inguruko populua prest agiri zen edozein matxinadarako.

Berrehun urte geroago, zenbait datu aldatu dira. Esperientzia hartu dugu. Baina Humboldten galderak, oraindik gaurkotasun osoa dute. Erantzuteke daude eta egongo dira, soluzioak gizakion artean beti direlako partzialak inoiz ere ez totalak. Totala lortu duenak berehala konturatuko da berea ere ez dela soluziobiderik zuzen zuzena.